



EGUNEKO DIANAK




Ur antzetzaldea

Iazko ekainean estreinatua zuten Ur antzerki taldeak Shakespeareren 'Sueño de una noche de verano' lana eta geroztik 44 emanaldi eskaini ditu Euskal Herria, Espainia eta Argentinan. Europa eta Hego Amerikan 60 emanaldi egingo ditu hilabeteotan. / 24



Tomas Hernandez

Donostiako Kutxako aretoan ikus daitezke Tomas Hernandez pintorearen lanak. Erakusketa ugari eta sariak ere irabazi ditu pintoreak. / 25



Jorge Serrano

Erbesteratutako guatemalarraren aberriratzeko prozesua zaildu izanaren erantzulea Rigoberta Menchu 1992 urteko Bake Nobel saria da, Jorge Serrano Guatemalako lehendakariaren esanetan. / 19

Luis Jimenez: «Beste bizitzarik ez bada ere, hau honela bizitzeak merezi du»

31 urte pasa daramatza Latinamerikan Fe y Alegria erakundeari emanak


TXEMA AUZMENDI / DONOSTIA

Luis Jimenez Lombarrekin ez dago Latinamerika eta Fe y Alegria (F-A), hau da, Fedea eta Poza erakundea, aipatzeke mintzatzerik; ezinezkoa da. Hogeitamaika urte pasatxo daramatza Luisek Ameriketara eta horietarik garrantzitsuenak Fe y Alegria delakoari emanak, hasieran astean ordu batzuk eta, ondoren, 1971. urteaz geroztik, buru-belarri. Gaur egun berau dugu erakunde honetako idazkaria Estatu espainiarrean eta, aldi berean, nazioarteko harremanetarako arduraduna ere bada.

1961. urtean iritsi zen lehenengo aldiz Luis Venezuelara, hots, inoiz burutik pasa ere ez zitzaion lurraldera, bere nagusiek bidali baitzuten hara Luisek misiolari izateko inolako gogo eta eskaerarik agertu ez bazuen ere. «Egia esan —aitortu digu Luisek—, ez nuen hain urrutira bidaliko nindutenik pentsatzen eta egundoko, berebiziko sorpresa hartu nuen harako agindua eman zidatenean».

Venezuelara heltzean hasierako harridura izugarriko txoke bihurtu zitzaion, hango giroak (ideien adierazpen askatasuna zela, gizon-emaumeen arteko harreman mota ezberdinen naturaltasuna zela, eta abarrek) ez zuen eta zerikusirik Espainian ezagutu eta bizi izandakoarekin.

Oso jende jatorra eta atsegina aurkitu zuela esan digu Luisek eta hango herria maitatzen ia-ia konturatu gabe ikasi omen zuen. Esan beharrik ez dago, noski, Fe y Ale-



ANDER GILLENEA

SOSLAIA

Jesuita 18 urterekin

Duela 51 urte jaio zen Luis Zaragozan, hiru neba-arrebetatik zaharrena izanik. 17 urterekin jesuita sartzeko baimena eskatu zion aitari eta honek ezezko borobila eman zion, ez omen zitzaion eta askatasunik gabeko bizimodu hura, jesuitek eta erlijiosoek zeramatena, alegia, bere semearentzat batere egokia zenik iruditzen. Urtebeteko ingeniartza ikasketak egin ondoren, Luisek aitaren baimena lortu zuen, ez ordea haren iritzia aldatzea, urte asko igaro beharko baitzuen hori iritsi arte.

griak honetan zeresan handia izan duela. Hirurogeiko hamarkadan egin zuen topo Luisek F-A erakundeari, eta orduko lotura gero eta estuagoa egin omen zaio urteen poderioz.

1955. urtean abiarazi zuen F-A era ezin apalagoan Jose Maria Velez Irazu Txilen jaiotako euskal jatorrizko jesuitak. Pobreen aldeko hautua egin zuen berak garai hartan Caracasen auzo pobre batean eta izpiritu horrixe eusten dio gaur egun ere obra erraldoi honek, Latinamerikako 12 estatutako 600.000 haur, gazte eta heldu baino gehiagori heziketa eskainiz, beti ere tokian tokiko beharrik, aberastasunak, baldintzapen ekonomikoak, eta abar gogoan hartuz.

Venezuelan hasitako lana Dominikar Errepublikara eta Paraguarayra zabaldu da azken urteotan, eta Haitiraino eramanez nahi lukete. Hain emaitza onak eman dituen eta ematen ari den erakunde hau zergatik ez atera Ameriketatik eta Asia eta Afrikako lurralde pobreetara zabaldu galdetzean, zera bota dit Luisek: «Gu hara joan baino asiar eta afrikarrek etorri beharko lukete hona, Fe y Alegriaren izpiritua bereganatu eta ondoren beren lurraldeetan zerbait antzerakoa sortzen ahalegindu. Gu, bederen, —diosku Luisek, ziurtasunez— horren aldekoak gara gaur egun».

Agurtzeko momentuan agertzen duen pozaz egin diot galde eta pentsakor utzi nauten hitzok jalgi dizkit: «Beste bizitzarik ez badago ere, hemengo hau honela bizitzeak merezi du».

LERRO GUTXITAN

CSI-sindikatuak berriro mahaian

Bizkaiko labe garaiak eta Ensidesaren birmoldaketa negoziatzen duen mahaia datorren astean bilduko da. Altzairugintza sektoreko 9.700 langile kaleratzea jasotzen duen planaren inguruan adostasuna iristen saiatuko dira. Siderurgia Korporazioa CSI, sindikatuak eta Koadroen Konfederazioko ordezkariak daude mahaian.

ONCE

ASTEARTEA

20.003


ASTELEHENA 61.884

ASTEAZKENA

OSTEGUNA

OSTIRALA KUPOITZARRA

irrimarra



© Jon Zabaleta

□ **OBULU-EMAILE 100.000 PEZETAREN TRUKE.** Bartzelonako CEFER ernalketa tratamendurako zentroak 100.000 pezeta eskaintzen dizkie obuluak ematen dituzten neska unibertsitariak. Bartzelonako Unibertsitatean jarritako iragarkian 18 eta 25 urte bitarteko gazte ezkongabeei egiten diete proposamena. Joan zen irailaz geroztik, 20 bat gazte azaldu dira horretarako prest eta oraingoz hamar egin dira obulu-emaile. Haurrik eduki ezin zuten bikoteek beraiek eraman izan dute obulu-emaile orain artean, araba, senitarteko edo lagun bat izan ohi dena. Legedi berriaren arabera, ordea, bikoteak ez du jakin behar obulu-emaile zein den.

□ **JOSE MARTI BUENO MENDIZALEAREN** gorpua atzo goizean aurkitu zuten Vall d'Eboko (Alacant) Avenc Amplia mendian. Francisco Coloma, Buenorekin batera desagertutako gaztea, nekeak abailduta zegoen aurkitu zutenean, baina ez zuen zauri garrantzitsurik. Igandean abiatu ziren Valentziatik 28 urteko bi mendizaleak. Agertzen ez zirenez, astelehenean hasi ziren beren bila Alacanteko suhiltzaileak.

□ **SKINHEAD ITXURAKO BI GAZTE** labanaz eraso zituzten joan zen igandean Fuenlabradan (Madril) arraza beltzeko bi lagun eta kolonbiar batek, «irain egin» zitelako, Poliziari adierazi ziotenez. Trenean zihoazela izan zen gertaera. Lau labankada jaso zituen batek eta bi besteak. Beren osasuna larria da oraindik.

□ **PARISEKO GERNIKA** kanta eta dantza taldeak datorren udan ospatuko du 60. urteurrena eta Parisen ibilitako hainbat euskaldunen bila dabilta, gomitak egiteko. Hala, kide izan ziren guztiei eskatzen diete honako helbidera idazteko: Gernika Taldea, Euskal Etxea, 10 rue Duban, 75016 Parise, Frantzia.